

## **HOBKUNTZA-EKINTZA**

### **TUTORETZA INPLEMENTATUA 2019ko HIRUGARREN HIRUHILEKOAN**

Bi harreman pertsonal ezartzea ikasturtean zehar:

- a. Ikasle berrientzat:
  - Irailean ikastaroaren gida banatu eta eskolaren proiektua aurkezten zaie.
  - Irakasleak egoki deritzon beste une batean.
- b. Dagoeneko eskolan dauden ikasleentzat:
  - Irakasleak erabakiko du zeintzuk izango diren une egoki biak ikaslearekin edo familiarekin harremanetan jartzeko.
  - Aurrez aurreko lehen tutoretza lehenengo hiruhilekoa amaitu aurretik egin behar da.

### **ADIERAZLEAK EKINTZAREN BETETZE-MAILA NEURTZEKO**

- Ikasle berrien kasuan, lehenengo tutoretzaren ostean telefonoz deituko zaie ausaz irakasle bakoitzaren ikasle batzuen familiei galdetzeko zer moduz joan den tutoretza.
- Dagoeneko eskolan dauden ikasleen kasuan, ezin denez jakin zein unetan deituko dioten irakasleek ikasleari edo familiari aurrez aurreko tutoretzarako, urtarrilean (oporren ostean) telefonoz deituko zaie ausaz irakasleen ikasle helduei eta familiei.
- Ekainean ausaz telefonoz deituko zaie irakasleen ikasle helduei eta familiei.

### **TUTORETZAK HOBETZEKO 2019ko EKAINEKO EKINTZEN EMAITZAK**

Joan den ekainean, hobetzeko ekintzan ezarritako adierazleak lortze aldera, irakasleen ikasle helduei eta familiei telefonoz deitu zitzairen. Egin zitzaizkien galderak honako hauek izan ziren:

1.- Elkarrizketa izan duzu zure tutorearekin edo semearen/alabaren tutorearekin ekainean zehar?

2.- Jorratutako gaiak argitu dute ikasturtearen garapen akademikoa?

2019ko ekainaren 30ean matrikulatuta zeuden 1056 ikasleen artean 129 inkesta egin dira eta honako datu hauek lortu dira:

- Ekainean matrikulatuta dauden ikasleen %12,22ri egin zaio elkarrizketa.
- Inkesta bete dutenen %76,82k erantzun dute harremana izan dutela tutorearekin ekainean zehar.
- Inkesta bete dutenen %90,69k adierazi dute tutorearekin izandako elkarrizketak garrantzitsuak direla ikaslearen garapen akademikoa jakiteko.